# 2023ko PROIEKTU DEIALDIA : FIKZIOZKO FILM LABURRAK

**Akitania Berria eskualdearekin hitzartu 2021-2023ko helburu eta baliabide kontratuaren karietara, Kanaldude telebista kateak, 2023an, fikziozko film laburrentzat (irudi errealak) proiektu deialdi bat proposatzen du.**

## Proiektu-deialdiaren bururatzea : 2023ko maiatzaren 31a

Txostenak telebista katean aztertuak izanen dira, mundu profesionaletik datozen irakurleekin osatu hautaketa-batzordean. 2023an, Kanaldude engaiatzen da 3 film laburren aurre-erostea,  orotara 9 000 eta 10 000 euroren arteko ekarpena eginez. Proiektu eramaileei azkarki aholkatzen zaie hautagarritasun irizpideak kontutan hartzea.

### PROIEKTUEN HAUTAKETA

Telebista kateko ordezkariek eta mundu profesionaletik datozen irakurleek hautaketa-batzorde bat osatuko dute. Proiektuen alde bateko hautaketa 2023ko ekain bukaeran berantenaz eginen da.

### HAUTAGARRITASUN IRIZPIDEAK

GENEROA : Fikziozko film laburrak  (irudi errealak).

HAUTAGAIAK :
Proiektuek gutienez ondoko irizpide bat bete behar dute:

- Proiektua eramaten duen ekoizpen-egitura Akitania Berria eskualdeko lurraldean finkatua izan behar da  eta nagusiki ikus-entzun edo zinema ekoizten du (APE 5911 A edo C kodea duten sozietate edo elkarteak)
- Proiektua eramaten duen autore edo zuzendariak bere bizitegi nagusia Akitania Berria eskualdeko lurraldean du

- Proiektuak kultur harreman azkarra du Akitania Berriarekin; izan lurraldeko ezaugarri kultural, historiko, sozial edo ekonomikoekin.

TEMATIKAK : libre

FILMAREN JATORRIZKO HIZKUNTZA : Euskara (elkarrizketen %30a bederen).

Irakurketa-batzordeak ondoko irizpideei kasu eginen die :

- Proiektuak kalitatezkoak izatea : proposatu gaien egokitasuna, gidoiaren kalitatea eta taula zuzendaritzaren originaltasuna.
- Produkzio eta banaketa estrategia
- 2024an hedatzeko prest izatea
- Proiektuaren karietara euskarazko gaitasun artistikoei edota teknikoei dei egitea edo horretarako formatzea.
- Proiektuek CNC eta Akiatania Berria eskualdeko diru-laguntzen irizpideei erantzutea (laguntza automatikoak edo selektiboak)

**PROIEKTUEN AZTERKETA**

Film laburrei dedikatu diru-laguntzak galdegiteko eta muntaketa finantziario baten perspektiban, txostena nagusiki frantsesez idatzia izatea aholkatua da. Gidoia euskaraz idatzia izan daiteke.

Proiektuak 2023ko maiatzaren 31a arte igor daitezke, e-postaz, fitxategi bakarrean (PDF formatuan, gehienez 10 Mo) helbide honetara: loic@kanaldude.eus
Proiektuen hautagarritasuna egiaztatu ondoan eskuratze-agiri bat igorriko zaie proiektu-eramaileei, proiektua errezibitu den egunetik goiti aste bat barne.

**Txostenean ondoko elementuak agertu beharko dira:**

- Fitxa tekniko bat autore, zuzendari, produktore eta koproduktoreen deitura-helbideekin; produkzioaren plangintzarekin; filmaren ezaugarri teknikoekin (iraupena, formatua, hizkuntza…); filmaketa eta postprodukzio lekuekin; aktoreak, talde artistiko eta teknikoaren zerrendarekin.
- Filmaren laburpena
- Autorearen xede nota.
- Produktorearen xede nota.
- Gidoia
- Zuzendaritza nota bat filmaren tratamendua zehazteko.
- Aurrekontu zehatza
- Finantzamendu-plana, bildu diren finantzamenduak zehaztuz

- Autoreen eta film-egileen CVa
- Proiektu-eramaile den produkzio sozietatearen edo elkartearen aurkezpena.
- Autorearen eta produktorearen artean izenpetu eskubideen lagatze kontratuaren kopia bat

Hegoaldeko ekoizle bat bazara eta Akitania Berrian ekoizle bat atzeman nahi baduzu ko-ekoizpen bat eraikitzeko eta guri proiektu bat bidaltzeko, Akitania Berrian kokatuak diren ekoizle-elkarteekin harremanetan sar zaitezke :

- LA PEÑA : pena.nouvelleaquitaine@gmail.com
- LE GROUPE FICTION : legroupefiction@gmail.com

**Kontaktua :**
Loïc Legrand
loic@kanaldude.eus